

32 Landareek eskaintzen dituzten onurak

Landareek oxigenoa eta elikagaiak ematen dizkigute, baina beste hainbat gauza gehiago ere bai. Irakurri honako testuak.



Landareek ez dute oxigenorik sortzen, askatu baizik, fotosintesiaren bidez. Landareek karbono dioxidoa eta ura xurgatzen dituzte, eta behar dituzten substantziak erabili ondoren, oxigenoa askatzen dute.

1



Gure elikaduraren oinarria dira landareak: fruituak, lekariak, zerealak, barazkiak...behar-beharrezkoak ditugu osasuntsu egoteko.

2



Landareek, karbono dioxidoa xurgatzeaz gain, airean dauden substantzia kaltegarriak ere garbitzen dituzte.

3